



## Giro berezia ikastetxeen arteko Batel Topaketan

**TOLOSA** ▶ Laskoraingo eta Gernikako ikasleen arteko lehiaren eskualdekoak nagusitu ziren

**HASIBERRIAK** ▶ Arraunean ikasteko aukera izan zuten bi ontzi berezietan eta ergometroan ▶ 4



Jende ugari gerturatu zen lehen Batel Topaketara. NAIARA GARZIA



## Lehen Dantza Eguna arrakastatsua

**IBARRA** ▶ Berrobi, Tolosa, Altzo eta Ibarako 200 haur aritu ziren dantzan goizean; arratsaldean iparraldeko taldea eta herritarrak ▶ 5

### GOIERRITARRA aldizkariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN

ERREFERENTZIA:07-KOG

**Eskaintzen da:**

- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

**Eskatzen da:**

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Jzaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

**Kontuan hartuko da:**

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Goerri bertan edo inguruan bizitzea.
- Goerri inguruak ongi ezagutzea.

**Curriculum Vitae** zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen.  
gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA  
Ez ahaztu erreferentzia zehatzea

hitza

Harpidedunen  
txokoa



Datorren **larunbatean**, ekainak 16, **22:30**ean Villabonako Olaederra kiroldogian **OINKARI** dantza taldeak "**ASPALDIKOTIK**" ikuskizuna aurkeztuko du.

Hitzako harpidedunen artean **bi harpidedunentzat bina sarrera** zozketatuko ditugu!

**Zorte on eta adi egon!**

## UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

## Egunero berdin



Aste honetakoak larria izan da, zentzu guztietan, begiratzen den zirkuitutik begiratzen dela. Soka eten da, baina sokaren hari muturrak urrun zeuden lehen ere elkarrengandik. Korapilatuta ote gaude berriz? Niri aste luzea egin zait behintzat. Dena

ikusten dut berde, eta ez esperantzaren berdea. Berdeak berriz ez ikusteko esperantzari eutsi nahi diot baina uste dut hemendik aurrera gorriak ikusteko gaudela.

Asteazkena. Ibarra. Bertso eskola bat sortu dugu bertako gazte kuadrila batek hala nahita, eta asteazkenean genuen lehen bilkura eguna. Ibarra plaza sartzeko ateratzeko gogoak eman zidan. Zenbat berde eta zenbat su arma! Zer zen hura? Gaur Oreretan ospatzen ari den amnistia eguneko karte-

lak jartzearen ostiko batekin hartu zuten gure ezagun bat. Delitu handiagoa iruditzen zait bigarrenaren jarrera lehenengoarena baino. Erfin.

Handik gure lehen saioa egin ondoren lasai nindoan etxera. Nekatuta, baina gustura. Arratsaldeko beldur eta amorrazioen mina pittin bat arinduta. Ez luzerako, ordea. Tolosa irteeran putrea berriz ere errepide ertzeko artzai. Bildots gazteen zain. Horizontat denak gara ardi beltzak baina eurak dira ardi larruz estalita artaldeak sakabanatzen

ari diren otsoak. Ez ninduten luze eduki, eta gaitzerdi.

Hurrengo egunean, ordea, beste bi bider ikusi behar izan nituen. Zenbat bide, hainbat bider. Ez al daukate beste zereginik? Sutan jartzen nau gainera duten harro jarrerak. Ahotsean duten dardara antzemango nieke gizalegez eta edukazioz hitz egingo balute, baina papelak ere builaka eskatzen dituzte. Dardararen beldur agian. Eurek ezin lasaitu eta gu aztoratu. Berriz ere esango dute Euskal Herria berdea dela!

## IRUDI ZAHARRA ▶



## Amasa-Villabonaren itxuraldaketa urteek aurrera egiten duten heinean

**Erredakzioa** ▶ Urteek aurrera egin ahala gauzak asko aldatzen dira, eta aldaketa horien lekuko zuzenak izaten dira argazkiak. Goian ezkerrean 1920ko hamarkadan Villabonak zuen itxura ikus dezakegu, beste garai oso ezberdin bateko ikuspegia da; bi kale besterik ez zituen Villabonak orduan: Kale Nagusia eta Kale Berria. Behean ezkerrean, berriz, Amasarako errepide berrian ama eta haurra daude pa-

sean 1930eko hamarkadako argazkian; N-1 errepidearen arrastorik ez dago oraindik garai haietan. Goian eskuinean, 1962. urtean ateratako argazkia dugu; Villabona da Oria ibaiaren ezkerrean dagoena, eta Zizurkil eskuinean. Amasa, berriz, goian. 1968. urtean ateratakoa da behean eskuinean duguna; Etxauntxiki baserriaren parean 8 solairuko etxebizitza eraiki dute. \*AMASA-VILLABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK\* LIBURUA

GUTUN@K ▶

Eskerrak  
Asier Vitoriari

Oinkari dantza taldeak:  
Kaixo Asier!

Lau urteren ondoren bukatu dituzue udaletxeko zure lanak, ez al da hala? Orain beste batzuei utzi diezue zure lekua. Bizi ditugun egun hauetan, etorriko diren horiei buruz baino ez dugu hitz egiten, botoak gora, botoak behera... baina gure asmoa alderantzizkoa da, atzera begiratu eta igaro diren lau urteei begira jartzea, hain zuzen ere.

Normalean, zerbait gaizki doanean gutako edozeinen joera kexatzea izaten da, errua

besteei botatzea, hori baita jarrerarik errazena! Baina gauzak alde ditugunean dagokion pertsonari eskerrak emateaz ez gara gogoratzen... Hori gehiago kostatzen zaigu! Hau gogoan hartuta eta sigla politikoak alde batetara utzita, zuk, Villabonako udaleko zinegotzi modura Oinkari dantza taldearengatik egin duzuna eskertu nahiko genizuke lerro hauetan zehar.

Denok dakigun moduan, Oinkari euskal dantzak egin, ikasi eta irakastea gogoko dugun pertsona osatutako taldea da. Profesional izatetik urrun, herriko talde soil bat gara, gure borondatez dantzaz gozatu eta gozaratzea helburu

duen talde bat. Asier, zuk zinegotzi bezala Oinkariren alde egin duzun apustua oso garrantzitsua izan da guretzat, beti laguntzeko prest izan zaitugu, eta eman dizkiguzun erraztasunek aurrera jarraitzeko indarra eman digute. Hitzetatik ekintzetara pasa zaren zinegotzia izan zara, agindutakoa beti bete duzuna, nahiz baiezko erantzuna izan, nahiz ezezkoa. Sigla politikoak edozein izanik ere, herritar bezala herriko taldeei lagundu diena. Hau guztiagatik Oinkari dantza taldearen izenean gure eskerrik beroenak ematea besterik ez zaigu geratzen. Mila esker benetan!

Lau urte hauen ondoren, me-

rezitako deskantsua hartuko duzula espero dugu! Mila esker berriro ere eta ea etorkizun labur batetan bidelagun garen proiekturen batean!

ENKO ARTEAGA USANDIZAGA ETA  
ALAZNE GURRUTXAGA UGARTE  
(OINKARI DANTZA TALDEKO  
ARDURADUNAK) ▶ VILLABONA

Loatzo musika eskolak:

Villabonako Loatzo Musika Eskola osatzen dugun arduradun eta irakasleak, Villabonako Kultur zinegotzia den Asier Vitoriari publikoki gure eskerrik beroenak eskaini nahi dizkio- gu.

Azken urte hauetan elkarrekin igaro ditugun une guztien- gatik, bere lankidetzeta estu eta

arduratsuen bidez, gure Eskolaren sendotza eragin duen Asierren borondate eta ekimena eskertu nahi ditugu.

Aldi berean, bere musikarekiko sentsibilitatea guretzat lagungarri izan daitekeelako etorkizunean ere gure inguruan jarraituko duen itxaropena dugu.

Dituen antza guztiak azalduz musikarekin erlazio naturiko proiektuetan lanean jarraituko duelakoan, aurrerantzean berearekin laguntasun eta musika une ederrak elkar banatuko ditugulakoan gaude.

Bihotzez, esker mila.

IÑAKI ZALAKAIN ESAIN (LOATZO  
MUSIKA ESKOLAKO  
ARDURADUNA) ▶ VILLABONA

JOAN OTAEGI ▶ APAIZ SAKRAMENTINOA

«Apaiz erlijioso izateak bizitza argitu dit, eta kongregazioan, berriz, esnatu egin nintzen»

Iñigo Terradillos ▶ Sakramentinoak Tolosara etorri zirenetik 100 urte betetzen dira aurten, eta hori dela eta, atzo ekitaldiz beteriko egitarauari ekin zioten. Egund 11 dira Sakramentinoen egoitzan bizi diren apaizak. Horietako bat da Joan Otaegi (Lasarte, 1935).

Noiz iritsi ziren Sakramentinoen egoitzara?

10 urte nituela, 1945ean etorri nintzen. Seminario txikiko ikasketak egin nituen, nobiziatuko bi urte, eta gero, 1953an Bizkaia joan nintzen, Filosofia eta Teologia ikasketak burutzera.

Tolosako egoitzara iristean zer topatu zenuen?

Nire tankerako umeak. Gipuzkoarrak ziren gehienak, baina, baita nafarrak eta bizkaitarrak ere.

Nolatan hartu zenuen hona etortzeko erabakia?

10 senide ginen familian, eta horietatik 4 erlijiosoak izan gara, bi gizonetako eta bi emakumetako, eta beste seiak ezkonduak. Gaur egun seguruenik ez genuke onartuko garai hartako sistema, baina egindakoarekin ez dut batere damurik. Nire bizitzan poza nagusitu da.

Alde batetik bestera ibilia zara.

Bai. Bizkaitik, 1959an apaiz egin ondoren, Madrilerara joan nintzen. Bi urte ikasten egin nituen han eta 61ean Tolosara bueltatu nintzen. Bi urte egin nituen Tolosako egoitzan irakasle bezala, eta gero 1963an Erromara joan nintzen 3 urte-



I. TERRADILLOS

rako 66an Tolosara etorri nintzen beste urtebete egitera, nobizioekin eta laguntzaile bezala egon nintzen. 67an ikasleen arduradun lanak egitera joan nintzen Bizkaia. Arratian egon nintzen lehenengo eta gero Bilbon. 2004ra arte egon nintzen Bizkaian arduratu batzuekin, eta gero euskal filologia ikasi nuen Deustuko unibertsitatean eta bertan irakasle ere izan nintzen. 66 urterekin jubilatu egin nintzen eta Parisen egin nuen urtebete, eta 2004ean Tolosara bueltatu nintzen berriro, parrokiko erretore izatera.

100 urte bete ditu dagoeneko Sakramentinoen komunitateak Tolosan. Nolako izan da labor labor mende bateko historia hori?

Jules Bonnacaze Aita Sakramentino frantsesa izan zen hemengo fundatzailea. Frantziatik hainbat kongregazioa sartu ziren garai haietan, eta tartean Sakramentinoena. 1907an Rondilla kalean kokatu zuten egoitza, eta 1913tik aurrera egungo egoitzara igaro ziren. Bonnacaze Aita Nagusi izan zen 1917ra arte. Hasierako helburua bokazioak bideratzea zen, gehienbat Goierrikoak, gainera. Hemengo lehen taldeari dagokionez, Aita Arratibel ataudarra, Juan Jose Usabiaga beasaindarra, eta beste bi Ondarrukoak izan ziren. Eta urteetan hemendik igarotako irakasleak, berriz, ehunka izan ziren. 1972. urtera arte ia 1.000 irakasle igaro ziren Tolosako Sakramentinoetatik.

Gordetzen dituzun oroitzapen nagusienak zeintzuk dira?

Apaiz erlijioso egin naiz, eta horrek argitu dit bizitza. Beste giza dimentsio batean, esan dezaket hemen, Sakramentinoetan, esnatu nintzela. Egoitzako lagunak gehienak euskaldunak nituen, eta gainera, ni euskara irakasten ere aritu nintzen. Lehiaketa literarioak ere egiten zirela gogoan dut, eta euskaraz egiteko aukera ere bagenuen. Gerratearen ondorioz, isiltasuna izan zen legea euskarari dagokionez.

Egun zeintzuk bizi zarete Tolosako egoitzan?

11 apaiz gaude egun. Tartean da 103 urte dituen Aita Ramon Barandiaran. 1915ean sartu zen kongregazioan. Gainerakoak 70eko hamarkadan gaude gehienak.

Nola da zuen eguneroko bizitza?

Lanik ez zaigu falta. Sakramentinoetako parrokia ematen dugu. Asuncion klinikako kapila ematen dugu, eta San Kosme eta Iurramendiko heldu eta gaixoekin ere izaten gara.

Mendeurrena dela eta egitarau berezia antolatu duzue.

Nahi handia zuten garaiok argazkiak ikusteko ikasle ohiek, eta horregatik erakusketa jarri dugu ikusgai. Hitzaldiak ere izango dira Anthony McSweeney-rekin Kultur Etxean datorren ostegunean, ostiralean eta larunbatean. Australiarra da bera, gure buru izandakoa, Nik Erroman ezagutu nuen. Horretaz gain, otoitz-aldia ere egingo dugu datorren larunbatean, eta igandean, hilaren 17an, ekitaldi nagusia izango da, eskeroneko meza nagusia, Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzainarekin.

APAIZ ERLIJIOSOA

«Gaur ez genuke onartuko sistema hura, baina ez dut batere damurik; poza nagusitu da nire bizitzan»

EGUNEROKOA

«Lanik ez zaigu falta: parrokia ematen dugu, Asuncion klinikako kapilan eta zaharren egoitzatan izaten gara»

TOLOSA ▶ KIROLAK

# Lehia gogorra Batel Topaketan, Laskorain eta Gernikaren artean

Batxiler mailan lehenengo gelditu zen Laskorain, baina 10 ehuneneko besterik ez zizkion atera bigarrenari: Gernika



DBH mailan Orixe, Hirukide, Laskorain eta Jesusen Bihotza lehiatu ziren. N. GARZIA



Batxiler mailan Laskorainek irabazi zuen. N. GARZIA



Ala ontzian arraunean ikasteri. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Tolosako hiru ikastetxeek (Orixe BHI, Hirukide eta Laskorain Ikastolak) antolatutako Lehenengo Batel Topaketa egin zuten atzo Zerkausi parean. Bertan, DBHko arraunlari gazteen artean erlojuz kontrako proba egin zuten eta batxilergoko partaideen artekoa izan zen txapelketa nagusia.

DBHko erlojuz aurkako proban ondorengo ikastetxeek hartu zuten parte: Orixe, Hirukide, Laskorain eta Jesusen Bihotza. Hirukide izan zen denborarik hobereana egin zuena, Laskorain, Orixe eta Jesusen Bihotza atzetik zituela.

Batxiler mailako proba oso borrokatua izan zen. 11:00etan 8 ikastetxek parte hartu zuten: Gernika, Laskorain (2 talderekin), Hirukide, Orixe, Donostia-ko Antigua-Luberri, Ondarribia eta Uzturpe, eta soilik lehenengo lauak sailkatu ziren. Azkeneko honen kasuan, bere bi taldeak sailkatu ziren arren, finalera bakarra pasatzea erabaki zuten, Gernikak ere parte har zezan.

Finala oso borrokatua izan zen, eta Laskorain Ikastola izan zen irabazlea, 10 ehuneneko tartarekin. Orixe bigarren lekuan gelditu zen, Hirukide hirugarren eta Gernika, laugarren. Jokin Bildarratz alkatea ala ontzian hurbildu zen irabazleak zoriondu eta hauei Tolosako bandera emateko. Ondoren sariak banatu zituzten.

Honetaz gain, Ikastolen Elkarrekin duen Ikasarraunaren proiektuari esker DBHko Tolosa eta Tolosaldeko lehen mailako ikasle guztiak arraunean hasteko aukera izan zuten, horretarako jarri zituzten bi ikaste-ontzi berezietan (ala delakotetan). Gainera, Zerkausi ondoren ergometro bat jarri zuten, nahi zutenek lurra arraunean ari zitezten.

Juan Agirre Orixeiko zuzendaria antolatzaileetako bat da: «Urtero antolatzeko asmoa daukagu eta DBHko maila bakoitzean batel talde bat sortu nahiko genuke».

AZOKA ▶

## Piperrak, tomateak, lekak... eta txirrindulariak

Euskal Bizikletak Tolosan gaua pasa eta gero, goizean kalean ikusi ahal izan zen

PABLO ALBERDI

Atzo Tolosako azokara hurbildu ziren herritar goiztiarrenak ezohikoa den txirrindulari giroa ikusi ahal izan zuten. Euskal Bizikletak Tolosan gaua pasa eta gero, txirrindulariek bigarren etapari ekin baitzitoten.

Eguraldi onak eta txirrindularien presentziak Tolosako kaleak animazioz bete zituen. Gainera, barazki eta garaiako landare asko ikusi ziren azokan.

Baba, ilarrak, zainzuriak, lekak eta tomateek kalitate ikaragarri ona zuten, eta produktu hauetaz gain Ibarrako ekozileek lehenengo piperrak salgai jarri zituzten.

Produktu mikologikoen eskaintza orain arte bezain ugaria da. Astero bezala asko izan ziren produktu hauek erosi zituzten erostunak. Ogi eta artisau opilek ere halako arrakasta izan zuten, baita produktu biologiko-ekologikoeke ere.

Berdura Plazak ohiko koloreen bizitasuna mantentzen du eta jardina eta baratzeak hazien salmenta goian mantentzen da.

TOLOSA ▶

## Xabi Alonsok Liverpoolen jarraitzea erabaki du

ERREDAKZIOA

Xabi Alonso tolosarrak 2012. urtera arte luzatu du Liverpoolen daukan kontratua. Alonso 2004. urtean hasi zen talde honekin jolasten eta hasiera batean 5 urterako kontratua sinatu zuen.

Rela Madrid eta Barcelonak Xabi Alonsoren erabakiren baten zai zeuden arren (partidu batzuk aulkian pasa eta gero), azkenean tolosarrak 2012. urtera arte Liverpoolen jarraitzea erabaki du.

ANOETA ▶ JAIK

## Txikienak ere poney gainean

N.G. ▶ Gazteen Eguna izan zen atzo Anoetan, eta beste hainbat ekitaldiren artean, Gorritiren jaialdia delakoaren barruan zezentxoak eta poneyak izan ziren plazan. Gaztetxoek ere animatu ziren. HITZA



Basta 100 urte emanak dituzte!  
1907. urtean sortu zen eta hainbat  
urte zehar 1000000 pertsona  
1000000 urte zehar 1000000 urte zehar

**BASERRIA 1907**

Familia guztiak 4 urte zehar eta  
1000000 urte zehar 1000000 urte zehar

castibaserria1907.com  
903 44 30 10

IBARRA ▶ KULTURA

# Jende ugari Dantza Eguna ospatzen

Haurrak protagonista izan baziren ere, arratsaldean helduak ere ausartu ziren

ASIER IMAZ

Eguraldi eguzkitsuarekin ospatu zen atzo ibarrako I. Dantza Eguna. Goizean, Berrobi, Tolosa, Altzo eta Ibarako 200 haur dantzari inguru ibili ziren herri guztian zehar saltoka eta algaraka, geldialdia egiten zuten

guneetan inguratzen zirenei dantza saioak eskainiaz. Herriko elkarteetan, hau da, Xepla, Sendi Ekintza eta Kirol elkarteetan bazkaldu ondoren, arratsaldean iparraldetik etorritako *Zpeiz Mukaki* taldeak hankak astintzeko gogoa zuten guztiak dantzan jarri zituen.



Herriko puntu ezberdinetan dantzatu zuten goizean zehar. A. IMAZ

## iragarki laburrak ▶

### ALOKAIRUA

**Karabana.** Errioxako kanpin batean karabana alokatzen da, guztiz eroso. 669 70 68 70.

### SALGAI

**Etxebizitza.** Tolosan etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, 2 bainugela eta trastelekuarekin. Egoera ezin hobean, eta sartzeko moduan. Ikuspegi ederrak.

44.000.000 pezeta. Deitu 626 75 27 44 zenbakira.  
**Etxebizitza.** Alegin bi logelako etxebizitza salgai, oso polita eta erabat berritua. Bi bainugela. 36.000.000 pezeta. 669 82 70 96.

### LANA

**Zaintzailea.** Emakumea behar da ebeko lanak egin eta umea zaintzeko. 943 69 64 93.



Bazkaltzera joan aurretik haur guztiak fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten plazan. A. IMAZ



Arratsaldean, *Zpeiz Mukaki* lapurtarrek giro bikaina jarri zuten haur eta ez hain hauren artean. A. IMAZ

idealista.com



bilatu haratago  
partikularrentzat doako iragarkiak



**ANOETAKO  
HERRI IKASTOLA**

Ergoien, 5 • Tel.: 943 65 29 32  
anoeta@ikastola.net

**Festak  
ondo pasa!**



**ingeniaritza  
imh**

**IMH Ingeniaritza Eskola**

Goi-mailako heziketa zikloa  
egin ondoren nahi baduzu...

ingeniaritza zikloa zure irakasketa zikloaren  
erantzulea izan daiteke. Zure irakasketa zikloaren  
erantzulea izan daiteke. Zure irakasketa zikloaren  
erantzulea izan daiteke.

ate irekiak

Ekainaren **16**an

Goizeko **11:30**ean

... zuzen IMH Ingeniaritza Eskola  
ezagutzera

*zure txanda!*

Informazioa:  
IMH INGENIARITZA ESKOLA  
Azken Auzoa, 1  
20610 EL GOBIAR, Gipuzkoa  
Tel. 943 744 132  
E-mail: ingeniaritza@imh.es  
www.imh.es



**cesi** Funtzioak CESI  
Ingeniaritza Taldea



NEKAZARITZA ▶

# Zer egin behi mindarekin?

IMANOL GARCIA

**B**ehi pixa edo mindaren gaia nekazaritzaren sektorean hizpide da. Azken hamarkadetan abeltzaintzan eman den intentsifikazioaren ondorioz zenbait ustiategitan arazoak eragin ditu mindaren kudeaketak. Domingo Merino Fraisoro Nekazal Laborategiko zuzendariak azaltzen duenez, «denbora pasa ahala esne behien ekoizpena asko igotzen da. Ekoizpena igotzeko behiek gehiago jan behar dute. Jaten duenaren %20a esne bihurtzen da eta beste %80a minda, gutxi gorabehera. Horrek minda pila bat sortarazi du».

Sektoreko hainbat alde —Foru Aldundiak, sindikatuek eta ikertzaileek— behi minda ongarrria dela diote eta ondo kudeatuz gero ez duela arazorik sortu behar zehazten dute. Foru Aldundiak zein sindikatuek bat egiten dute «kasu batzuetan erabilera txarrak» egin direla esanez, baina askotan berez duena baino garrantzi handiagoa eman zaiola gizar-tean deritzote.

Bestelako iritzia dute Asteasun sortutako Behi Pixaren Kaltetuen Elkarteko kideek. Horiek diotenez, behi mindak «kutsatu egiten du. Ustez ongarrria dena kontrolik gabe ixurtzen da eta horrek kutsadura sortzen du». Pixarekin batera hainbat elementu joaten direla gaineratzen dute: «Detergenteak, fungizidak, plastikoak, antibiotikoak, odola, hormonak... Horiek guztiak ere belazeetan zabaltzen dira».

Behiek jaten duten pentsuak ere (arazoak) ekartzen dituela diote. «Pentsuekin batera hazi pila joaten da. Gero hazi horiek pixarekin zabaltzen dira eta hemengo belazeetan ezhoizko landareak ugaltzen dira». Landare horiek bertakoak direnei gailendu egiten zaiela eta ho-

Nekazaritzaren hainbat alde behi pixa ongarrria dela diote eta kudeaketa on batek arazoak ekiditen dituela; zenbait herritarrek, aldiz, kutsagarria dela diote

rrek «desoreka» ekartzen dela salatzen dute. Orain 25-30 urtetatik pixa zabaldu den lur- rren egoera «oso pobrea» dela gaineratzen dute.

«Pixategien» aurka daudela diote eta Foru Aldundiari arduraz egotzen diote: «Arazo honetan parte-har-

puzkoako ustiategi guztiak kontuan hartuta ia 40.000 hektarea daude—. Ikerketan zehazten denez, aztertutako lur-sailetako «maldak kontuan hartu gabe, azalaren %70ean zenbait urtetan inongo ongarririk ez botatzea komeni da». Ikerketak gaineratzen duenez, «orain arte

behintzat botatzen duena bideratuta dagoela eta lasaitasun hori dauka».

Mikel Arteaga asteasuarra ENBA sindikatuaren Gipuzkoako lehendakaria da eta 160 esne behi inguru ditu lehengusu batekin batera. Bere esanetan behi mindarekin dagoen arazoa usain

zeetan eta mendian zabaldu beharrean, era desegokian bota dute, asko errepidearen ondoan. Horrek molestatu egiten du». Ganaduzaleak kudeaketa on bat eginez arazorik ez dagoela dio. «Ustiatagia handia edo txikia izan, kontua gauzak ondo egitea da».

Etxe ondoko terenoak, minda gehien botatzen den lekue- tan, ondoen dituenak direla dio Arteagak. «Gero eta lurrraren kudeaketa hobea egin, orduan eta gehiago onartzen du. Minda berez lurrak oso ondo onartzen duen materiala da, azkar xurgatzen duena eta lurrari ondo landuz gero, azkar eliminatzen dena».

Eneko Karrera EHNE sindikatuko Gipuzkoako lehendakariak dioenez, kasu askotan minda hondakin bat bezala hartzen da, «baina guretzat ongarrria da». Zenbait erabileraren ondorioz, kasu batzutan arazo bihurtu dela dio. «Horrek ez du esan nahi orokorrean horrela denik, ezta gutxiago ere. Zenbaitetan ematen den irudia base-

rritar guztiak kontaminatzen ariko bagina bezala da eta hori ez da horrela».

EHNetik «lurrari lotutako nekazaritza» bultzatzen dutela azaltzen du Karrerak, «kudeaketa orekatu bat ematen duen nekazaritza». Minda askotan hondakin bat bezala tratatzen denean, «azterketa ez dela zuzena ikusten dugu». Administrazioetik «intentsifikazioa bultzatu» dela eta laguntza batzuk ematerakoan ez dela aztertu



tzai-  
le a k  
d i r a ,  
k u t s a -  
t z a i l e b e -  
z a l a . F o r u  
A l d u n d i a k  
b i k a m i o i d i t u  
e t a p i x a z a b a l -  
t z e n d u t e . B a s e r r i t a -  
r r e n a u r k a e z d a u d e l a  
a z a l t z e n  
d u t e , b a i -  
n a b a i b e h i t e g i  
h a n d i e n  
a u r k a .  
«H o r r e l a -  
k o i n d u s t r i  
b a t e n k o n -  
t r a g a u d e . M i l a a r a z o e k a r t z e n  
d i t u z t e .»

## Ikerketa

Fraisoro Nekazal Laborategiak Neiker institutuaren laguntzarekin ikerketa bat burutu du mindari buruz. 40azienda larru unitate baino gehiago duten 115 esne behi ustiategi eta ardi ustiategi bat aztertu zituzten. Ustiategi horiek guztira ia 3.000 hektarea dituzte —Gi-

bezala jarraituz gero, minda ongarrria izan ordez kutsatzaile izatera pasatzen da».

Ikerketaren egileak, Domingo Merino eta Neiker institutuko Nagore Beranok, bat datoz irtenbidea kudeatzaile bat ezarri orerriko dela esatean. Beranok dioenez, «kudeatzaileak izango luke erantzukizuna. Lur- rren analisiak egin beharko lituzke eta erabaki non bota dai- tekeen eta non ez. Modu horre- tan baserritarrak badaki

txarrarena da. «Minda ximaurra da. Ximaurra eta pixa nahastenean pasta bat sortzen da, minda deitu zaiona, eta horrek biak banatuta baino usain gehiago du, baina beste inongo kalterik ez. Kontua da usain txarra duela eta horrek molestatu egiten duela».

Arteagak azaltzen duenez, «batik bat egonezin handiena bi-hiru pertsonen minda era desegokian erabili dutenean etorri da. Bere neurrian bela-

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

«zer ondorio eman zezakeen» dio Karrerak. «Bestalde, baserri batek kudeaketa orekatu bat emango balu, munda ez litzateke behin ere izango hondakin bat, baizik lurrarentzako behar-beharrezko ongariak».

**Irtenbide bila**

Jesus Argiñarena, Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendaria, behi mindaren kudeaketa zerbitzu baten alde ageri da. «Sektoreari proposatzen diogu lehendabiziki ustiatagiz-ustiategiko kudeaketa plan bat osatzea. Sektorearekin lotura duten bi enpresa zerbitzuz egingo luke lan hori». Azterketa Gipuzkoako 100 ukuilu ingurutan egitea aurreikusten da, zehazki 40 behi baino gehiago dituzten ukuilu guztietan.

Hurrengo pausoa, «ustiategiak ondo jartzeko egin behar diren inbertsioetarako diru laguntzen partidak ateratzea izango litzateke». Argiñarenak dioenez, «kudeatzaile bat behar da, zeinak zehaztuko duen non, noiz eta nola zabalduko den munda». Orain arte baserriarrak erabakitzen zuen hori, «baina aurrerantzean ez».

Aste honetan izan dute bilera sektoreko aldeek. «Kudeaketa plan bat egitea eta inbertsioentzako partida bat ateratzearen alde daude sektorean», dio Argiñarenak. «Zehaztu beharrekoa da kudeaketa planaren metodologia nola egin behar den». Esne behien sektorea izango da lehenengo esku hartuko dutena.

Behi mindaren gaia ez da «uste den bezain gatazkatsua. Ukuilu handirik ez dugu eta dauden arazoak inbertsio txikiekin konpondu daitezke. Mindarekin zer egin behar den «baserriarren erantzukizuna» dela dio Nekazaritza zuzendariak eta «administrazioa hor izango dela arazoak konpontzen laguntzeko», gaineratzen du. «Sektorearen arazo handiena esnearen prezio baxua da eta kuotekin nola izan daitekeen lehiakor», azaltzen du Argiñarenak.

# Asteasuko Iramuño eremuan 300 bururentzako behitegia jarriko dute Ondartza Bitarte baserrikoek

Zenbait herritar «leku desegokia dela-eta» instalazioa bertan jartzearen kontra azaldu dira

I. GARCIA

Asteasuko Ondartza Bitarte baserrikoek Iramuño eremuan, Andazarrate ondoan, 300 bururentzako behitegi bat egingo dute. Zenbait herritar kontra agertu dira eta proiektuari alegazioak jarri zizkieten. Proiektuak ingurumenaren gaineko eragin-ebaluazioa gainditu behar izan du eta ondorioz Udalak obra baimena eman dio. Laster obrak haste-koak dira bertan.

Ondartza Bitarte baserrian lanean aritzen dira aita eta bi semeak. Imanol Zubeldiak, semeetako batek, dioenez, «baserrian dugun ukuilua txikia gelditu zaigu. Ikaztegiaren alokairuan daukagu beste ukuilu bat eta dena batera jarri nahi genuen. Gure baserri ondoan ezin zen eta leku bila hasi ginen. Azkenean Iramuño egiteko aukera ikusi genuen».

Bost urtetan proiektuarekin aritu direla dio Zubeldiak. «Baldintza asko eskatu zaizkigu ukuilua egiteko. Bi gazte ari gara baserri honetan lanean eta momentu bat iritsi da aurrera egiteko beste ukuilu bat egin behar genuela». Laguntzarik ez dutela jaso esaten du Zubeldiak. «Jakin izan banu hainbeste denbora emango zuela proiektua gauzatzea, negozioa itxi eta beste zerbaitegan hasiko nintzateke lanean». Behi mindarekin arazoak izan dituztela aitortzen du Zubeldiak. «Putzua nahiko txikia dugu baserrian eta horrek arazoak ematen zizkigun». Egun, zisterna-kamioia eskuratu dutela dio. «Euskal Herrian ez dago hori duen baserririk. Eskaera handia dugu behi pixa zabalteko eta orain ez daukagu arazorik».

Proiektuaren aurka agertu diren herritarrek, tartean Behi



Iramuño argazkiko bi muinoen artean kokatzen da. I. GARCIA



Aizkardiren libalidia aprobetxatuz, Iramuño egin nahi den behitegiaren kontrakoek pankarta jarri zuten. I. GARCIA

Pixaren Kaltetuen Elkarteko zenbait kide, ez dute ulertzen «nola jarri daitekeen horrelako industri bat Iramuño bezalako leku batean». Iramuño zingira bat dela eta hor «industri kutsatzaile» bat jartzea «sinistezina» dela diote. «Urak Asteasura eta Aiara jaisten dira hortik, eta horrelako industri batek kutxatu egingo ditu». Bestalde, behitegia jarri nahi den eremua 500 metroko altuerara dagoela eta hortik Santio bidea pasatzen dela diote.

Hogeita hamar bat lagunek jarri zizkieten proiektuari alegazioak eta kezka handienetako sortzen diena da behitegiaren sortuko den behi minda nola banatuko den. «Pixa kontrolik gabe zabaldu dute. Orain, horrelako behitegi bat egitean 170 hektarea behar dituzte guztia zabalteko. Proiektuaren txostenean agertzen diren hektareei buruz iruzurra egin dute, jabeekin hitz egin gabe beraien lurra ere kontuan hartu baitituzte, tartean alega-

zioak aurkeztu dituztenen lurrak ere».

Iñaki Amenabar Asteasuko alkateak azaldu duenez, «Udalak eskatu zuen proiektuak ingurumenaren gaineko eragin-ebaluazioa betetzea, kontuan izanda ukuiluak izango zuten tamaina eta zein tokitan egingo zen. Hortik aurrera, ebaluazioa aldekoa izanik, Udalak baimena eman beharra dauka». Obrak amaitu ondoren eta behin ikusita ingurumenaren gaineko eragin-ebaluazioaren baldintzak bete direla, aktibitatea martxan jartzeko baimena emango lioke Udalak.

Mikel Arteaga ENBAko Gipuzkoa lehendakariak behitegi bat du Asteasun. Bere iritziz, «proiektu bezala oso txukuna da. Gero kudeaketa ondo egin beharra dago». Ganaduzale bezala leku hori «oso egokia» ikusten du ganadutegi bat jartzeko. Behitegi batek mendian egin behar du eta toki airoso batean».

EHNEko Eneko Karrerak dioenez, «horrelako proiektuak ondo aztertu behar dira. Sortuko den minda hori guztia non zabaldu behar den ondo aztertu behar da. Ez gaude proiektuaren aurka. Aztertu behar dena da izan ditzakeen arazoak ondo bideratuta dituzten».

Jesus Argiñarena Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko zuzendariak azaltzen duenez, «kontuan izan behar da orain duten ukuilua non dagoen. Herrian bertan dago kasik, eta egin nahi dutena herriatik lau kilometrorra dago». Bestalde, Argiñarenak nabarmentzen du proiektuak pasa behar izan dituen baldintzak «oso gogorrak» izan direla. «Gipuzkoan beste ukuiluak izan ez dituzten baldintzak bete behar izan ditu».

Prezio magikoak Citroën-en

Citroën, Espainiako 1. merkatuko liderra, Visiospace berriak jaurtitzen ditu eta prezio hauekin ospatzen du:

Citroën XSARA PICASSO 13.700€* <small>tik aurrera</small>	Citroën C5 17.600€* <small>tik aurrera</small>	Citroën C4 12.500€* <small>tik aurrera</small>
Citroën C2 8.400€* <small>tik aurrera</small>	Citroën C3 8.900€* <small>tik aurrera</small>	

**IROVI, S.A.**  
Citroën Konzesionario Ofiziala  
Industrialdea z/g. • Tel.: 943 65 18 42  
Anoeta / Tolosa  
**CITROËN**

VISIOSPACE-ak

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Herriko jaien baitan hau da gaurko egitaraua: 10:30ean, herriko txistularien kalejira; 10:30ean, meza nagusia, Lartaun abesbatzaren parte-hartzearekin; 11:00etan, Oiartzungo Lartaun abesbatza elizan; 12:00etan, sagardo dastaketa, borixo egosia eta gazta pinxoekin; 12:30-14:00 eta 18:30-20:30, herriko artisten lanak, eskulanetako taldeak eginiko lanak eta festetako kartel lehiaketan aurkezturiko lanen erakusketa udaletxean ikusgai; 17:00etan, herri kirolak (Anoetako zaharrak gazteen aurka, Arozetxea ondoko belazean); ondoren, erromerian plazara; 18:30ean, Otsolar dantza taldea plazan; 20:00etan eta 23:00etan erromeria Kupela taldearekin.  
**Leitza.** Gazte Eguna: arratsaldean jokoak izango dira, iluntzean afaria eta ondoren kontzertua Gaztetxean.  
**Tolosa.** Anari Bonberenean, 19:30ean.  
**Tolosa.** Tolosa CF Eskubaloia Taldeak infantil eta kadeteentzat bigarren txapelketa antolatuta du. Hilaren 16an izango da Usabal kiroldegian. Izen-ematea hilaren 14a baino lehen egin behar da Shanti Kirolak dendan edo ikastetxeetan.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *La telaraña de Carlota* haurrentzako filma, Leidorren, 17:00etan.  
**Tolosa.** *Seduciendo a un extraño* filma Leidorren, gaur, 19:30ean. Bihar, ikuslearen eguna, 20:30ean izango da ikusgai.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Lekunberri. Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
 Tolosa. Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.  
**Bihar**  
 Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.  
 Areso. Goizueta, F. Loidi Ebea. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Fleming eskolako festa, 3. mailako txirulariak emanaldian. ASIER IMAZ



San Juan eskolako haurrak frontoia ikusle zuten atzokoan. A. I.

# Ikasturte amaieran: Jaia

**VILLABONA-ALEGIA-TOLOSA ▶ Ez da dena liburuetan ikasten; guraso eta irakasleen begiradapean lotsa nola galdu ikasi zuten atzo haurrek**



Hirukideko haurrek «izpiritu gaiztoekin» lotu zuten sorgina erretzen ikusi zuten Tolosako zezen plazan. A. I.

**ASIER IMAZ**

Ikasturtea amaitzear dagoen honetan, eskola eta ikastolako jaiak ospatzen ari dira eskualdean. Atzokoan Villabonako Fleming eskolan, Alegiko San Juan eskolan eta Tolosako Hirukide ikastetxean haur, guraso eta irakasleak festan murgildurik ibili ziren.  
 Villabonan eta Tolosan, goizetik heldu zioten jaiari, haurren emanaldi zein jolasen bitartez. Bazkaria ere ikastetxean bertan zuten, arratsalderako indarrak berritzeko.  
 Alegian berriz arratsaldean irten ziren frontoira haurren jaialdia ikustera, hori bai, afari-merienda eta guzti.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Arkaitz eta Nagore Balda Usandizaga (Alegia).** Arkaitzek gaur 5 urte eta Nagorek bihar 2 urte. Zorionak eta muxuk ebeko bi bihurriei, aitabok eta amabok.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker. Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**



**URTE ASKOAN**  
**Eneko Etxeberria Irastorza (Tolosa).** Gaur 3 urte. Zorionak eta muxuk familiarren partetik.  
**URTE ASKOAN**  
**Margarita Zabaleta (Leitza).** Zorionak eta segi beti bezain guapa! Muxuk. Zure familia.